2024ZAUN0094

UDAKO UDALEKUEN UDAL PROGRAMAREN KUDEAKETAREN KONTRATAZIOA
CONTRATACIÓN DE LA GESTIÓN DEL PROGRAMA MUNICIPAL DE COLONIAS DE VERANO.

– *PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	GAZTERIA ETA HAURTZAROA / JUVENTUD E INFANCIA
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2024ZAUN0094

HITZAURREA

KLAUSULAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xede nagusia da 2025 eta 2026ko Udalekuen udal programa kudeatzea. Baldintza plegu honek ezartzen dituen baldintza teknikoei jarraikiz kudeatu beharko da zerbitzua, Irungo Udaleko Gazteria Zerbitzuaren zuzendaritzapean.

2.- HELBURUAK

Programa honen helburua da Irungo haurrei jolasaren eta dibertsioaren bidez beren autonomia garatzeko aukera emango dien espazio bat eskaintzea, hori guztia abenturarekin eta naturarekiko konexioarekin lotuta.

3.- ZERBITZU EMATEA

Aipatutako premisan oinarrituz, 2025 eta 2026ko udako udal udaleku irekien programaren kudeaketa kontratu nahi du Gazteria Zerbitzuak.

Udalekuetako Programa sei txanda mistotan gauzatuko da. Txanda bakoitzak 7 egun iraungo du, eta haietako lehenengoak uztailaren lehenengo astetik aurrera hasi beharko du, eta gainerakoak, ondoz ondoko txandetan, adin- eta hizkuntza-banaketa hau kontuan hartuta:

PREÁMBULO

CLÁUSULAS

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto directo del contrato es la gestión del Programa municipal de colonias de verano de los años 2025 y 2026, a desarrollar con arreglo a las condiciones técnicas establecidas en el presente Pliego de Condiciones y bajo la dirección del Servicio de Juventud del Ayuntamiento de Irun.

2.- OBJETIVOS

El objetivo de este programa es ofrecer a las niñas y los niños de Irun un espacio que permita el desarrollo de su autonomía a través del juego y la diversión, todo ello en claves de aventura y conexión con la naturaleza.

3.- PRESTACIÓN DEL SERVICIO

Partiendo de la premisa expuesta, el Servicio de Juventud desea contratar la gestión del programa municipal de colonias de verano 2025 y 2026

El Programa de las colonias se prestará en seis turnos mixtos, de 7 días de duración cada uno, debiendo comenzar el primero de ellos a partir de la primera semana de julio, y el resto en sucesivas tandas, de acuerdo a la siguiente distribución de edades e idiomas:

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: BG5B-SKCS-70H5-EZB0
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Irati Redondo Celaya RESPONSABLE DE JUVENTUD (05/12/2024 10:13 CET)

1. txanda: 8-10 urte bitartekoak, euskaraz.
2. txanda: 11-13 urte bitartekoak, euskaraz.
3. txanda: 8-10 urte bitartekoak, euskaraz.
4. txanda: 11-13 urte bitartekoak, euskaraz.
5. txanda: 14-16 urte bitartekoak, euskaraz
6. txanda: 11 -13 urte bitartekoak, euskaraz.

Edozein txanda egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da gutxienez 18 pertsonak izena ematea txanda horretan.

Proposatzen den jarduera-programak bat etorri beharko du txandetan parte hartuko dutenen adinarekin, bereziki abentura-motako jarduerei dagokienez. Era berean, monitore-taldeek programa txanden ezaugarrien arabera garatzeko egokiak izan beharko dute.

Txandak goizeko 10:00ak baino lehen hasiko dira, txanda bakoitzak irauten dituen 7 egunetako lehenengoan, eta ez dira amaituko txanda bakoitzaren azken eguneko 19:00ak baino lehen.

4.- PARTE-HARTZAILEAK

Txanda bakoitzean 50 haurrek parte hartuko dute, txanda bakoitzean plaza bat erreserbatuta, hala badagokie, dibertsitate funtzionala dutenentzat edo instituzioetan dauden umeentzat.

Egoera hori aurreikusita, enpresa esleipendunak bermatu beharko du dibertsitate funtzionala duten haurrei arreta ematen aditua den monitore bat edo instituzionalizatutako adingabeei arreta ematen espezialista den monitore bat izango duela, bai eta premia bereziak aitortu ez diren eta a priori monitore espezialistaren profila zehaztu ezin den kasuetan ere. Udalak erabakiko du zein izan behar den programaren garapenari, bizikidetzari eta antzemandako premia pedagogiko eta asistentzialei arreta emateko monitore espezialistaren profila.

5.- ALDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHAR OROKORRAK.

<u>5.1.- Esleipendunarenak:</u>

a) Era honetako zerbitzu batek eskatzen dituen lan guztiak aurrera eramateaz arduratuko da; gutxienez, honako hauek:

1.- Txanda bakoitzeko umeak Irundik jarduera egingo diren lekuetara, eta alderantziz, garraiatuko dira, betiere

1er. Turno, 8-10 años, euskara
2º Turno, 11-13 años, euskara
3er. Turno, 8-10 años, euskara
4º Turno, 11-13 años, euskara
5º Turno, 14-16 años, euskara
6º Turno, 11-13 años, euskara

Sera condición indispensable para que cualquier turno pueda realizarse que haya al menos 18 personas inscritas en el turno en cuestión.

El programa de actividades que se proponga deberá ser acorde con las edades de los/las participantes en los diferentes turnos, en especial las referidas a las actividades de tipo aventura. Igualmente, los equipos de monitores/as deberán ser los adecuados para desarrollar el programa conforme a las características de los turnos.
Los turnos se iniciarán no más tarde de las 10:00h. de la mañana del primero de los siete días de duración de cada turno y no finalizarán antes de las 19:00h. del último día de cada turno.

4.- PARTICIPANTES

En cada uno de los turnos participarán 50 niños/as, incluidas, en su caso, la reserva de una plaza por turno para personas con diversidad funcional o niños/as institucionalizados/as.

En previsión de esta circunstancia, la empresa adjudicataria deberá garantizar la disposición de un monitor/a especialista en atención a niños y niñas con diversidad funcional o especialista en atención a menores institucionalizados/as y los casos en los que las necesidades especiales no estén declaradas y no sea posible determinar a priori el perfil del monitor/a especialista, el ayuntamiento dispondrá cuál deberá ser el perfil del monitor/a especialista en atención al desarrollo del programa, la convivencia y las necesidades pedagógicas y asistenciales detectadas.

5.- DERECHOS Y DEBERES GENERALES DE LAS PARTES.

<u>5.1.- Del adjudicatario/a:</u>

a) Se encargará de ejecutar todas y cada una de las tareas que exige un servicio de estas características, y al menos las siguientes:

1.- Transporte a los niños/as de cada uno de los turnos de Irun, en vehículos que cumplan con las

indarrean dauden legezko araudiak betetzen dituzten ibilgailuetan.

2.- Sei txandetako bakoitzeko parte-hartzaile guztiei ostatu ematea aterpetxean, bungalow batean, kanpin-denda batean eta/edo horretarako ekipatutako instalaziotan, honako hauek kontuan hartuta: helburuak betetzea, garbitzea, behar den ohe-arropa edukitzea eta parte-hartzaile guztien egonaldia uneoro egokia izan dadin beharrezko den guztia egitea eta edukitzea. Esleipendunaren ardura izango da lan horiek *in situ* koordinatzea.
Udako udalekuen programa garatuko den instalazioek behar adinako edukiera izango dute, gutxienez, ezartzen den plaza kopurua gehi kontratua egikaritzeari lotutako langileak hartzeko plazak kokatzeko. Programa garatzen den bitartean, zerbitzuak une oro bete beharko du Euskal Autonomia Erkidegoan zein programa burutuko den Komunitatean indarrean dagoen araudia osasunaren arloan eta hezkuntzako aisialdiari eta haur eta gazteentzako ostatuei dagokienez.

3.- Programan parte hartzen duten ume guztien eguneroko mantenua; menuak prestatzea eta janariak erostea, biltegiratzea eta prestatzea (gosaria, bazkaria, merienda eta afaria) barne.
Enpresa esleipendunak parte-hartzaileen alergiak edo behar espezifikoak hartuko ditu kontuan menuak egiterakoan.

4.- Eguneroko jarduerak (hezkuntzakoak, kiroletakoak eta aisia eta denbora librekoak) antolatzea eta kudeatzea. Programan, abenturazkoak esaten zaien kirol-jarduerak jaso beharko ditu, adibidez raftinga, eskalada, xenda-ibiliak, hipika, arroilak jaistea, kayak, BTT,… parte-hartzaileen adinetara egokituta.

5.- Egoera ezin hobean edukitzea – garbitasunaren, segurtasunaren eta higienearen aldetik – aterpeko edo proposatutako ekipamenduari dagokion materialak eta instalazioak, eta baita jarduerak egiten diren gainerako lekuak ere.

6.- Proposatutako programako jarduerak egiteko behar diren langileak edukitzea, bai Monitoreak bai Denbora Libreko Zuzendariak, txanda bakoitzean, eta aipatutako jarduera-programa hori gauzatzeko beharrezko diren Monitore Espezialistak ere edukitzea.

normativas legales vigentes, a los lugares de desarrollo de las actividades y viceversa.

2.- Alojamiento de todos los participantes de cada uno de los seis turnos en albergue, bungaló, tienda de campaña y/o instalación equipada al efecto para cumplir los objetivos, la limpieza del mismo, la ropa de cama necesaria, y de todo lo necesario para que la estancia de los participantes sea la adecuada en cada momento. La coordinación *in situ* de estos trabajos será responsabilidad de la empresa adjudicataria.

Las instalaciones donde se desarrollara el programa de colonias de verano deberán cumplir con una capacidad suficiente para alojar, como mínimo, el número de plazas que se fija más las correspondientes plazas para albergar al personal vinculado a la ejecución del contrato, ajustándose en todo momento a la normativa vigente tanto en la Comunidad Autónoma de Euskadi como en la Comunidad en que en su caso se desarrolle el programa, en materia sanitaria y en lo referente al tiempo libre educativo y alojamientos para grupos infantiles y juveniles, durante el periodo de desarrollo del programa.

3.- Manutención diaria de todos los niños/as participantes en el programa, incluida la elaboración de menús, adquisición, almacenaje y preparación de los alimentos (desayuno, comida, merienda y cena).
La empresa adjudicataria tendrá en cuenta alergias o necesidades específicas de los participantes a lo hora de elaborar los menús.

4.- Organización y gestión de las actividades diarias educativas, deportivas y de ocio y tiempo libre. El programa deberá contener actividades deportivas de las denominadas de aventura, como por ejemplo rafting, escalada, senderismo, hípica, descenso de cañones, kayak, BTT,… adaptadas a las edades de los participantes.

5.- Mantenimiento en perfecto estado de limpieza, seguridad e higiene de las instalaciones y material del Albergue o instalación propuesta, y demás lugares donde se desarrollen las actividades.

6.- Disposición del personal necesario para llevar a cabo las actividades del programa propuesto, tanto Monitores/as y Directores/as de Tiempo Libre en cada uno de los turnos, como de los Monitores/as Especialistas necesarios para llevar a cabo el citado programa de actividades.

b) Parte-hartzaileek behin betiko izena emateko prozesua amaitutakoan, ekainean, eta Gazteriako zerbitzuarekin koordinatuta, bilera bat egin beharko dute txanda bakoitzeko parte-hartzaileen aitekin, amekin eta/edo tutoreekin. Bilera horietan, txandetako monitore-taldeak eta jarduera-programa aurkeztuko dira, eta programan parte hartzeko oinarrizko arau orokorrak azalduko dira.

b) Finalizado el proceso de inscripciones definitivas de los participantes, durante el mes de junio y en coordinación con el Servicio de Juventud, deberá realizar una reunión por cada turno con los padres, madres y/o tutores/as de los/as participantes, en las que se presentarán los equipos de monitores/as, el programa de actividades de los turnos, y se indicarán las normas básicas generales de participación en el programa.

c) Beharrezko diren langileak edukiko ditu, txanden hasiera eta bukaera-egunetan lanak aurreikusita bezala gertatu daitezen (ordutegiak, zerrendak, medikazioak jaso, adingabeak gurasoei edo tutoreei itzuli, etab.

c) Dispondrá del personal necesario cada uno de los días de inicio y final de cada turno para que todo se desarrolle conforme a lo previsto: horarios, listas, recepción de medicación, entrega de los/as menores a sus padres, madres o tutores, etc.

d) Zaindu egin beharko du kontratuaren xedeko jarduerak garatzerakoan instalazioak erabiltzeko oinarrizko arauak errespetatu egingo direla, eta bere kargura izango dira jardueren ondorioz sortu litezkeen kalteak eta galerak konpontzeko gastuak.

d) Velará para que en el desarrollo de la actividad objeto del contrato se hagan respetar las normas básicas de utilización de la instalación, y correrán de su cargo los gastos de las reparaciones de los desperfectos y de los daños y perjuicios que se ocasionen derivados del desarrollo de las actividades.

e) Udalak deitutako koordinazio- eta jarraipen-bileretara joango da.

e) Asistirá a las reuniones de coordinación y seguimiento que pueda convocarle el Ayuntamiento.

f) Esleipendunak pertsona bat izendatuko du, Irungo Udalarekin kontratu- eta kontrol-harremanak edukitzeko.

f) La empresa adjudicataria designará la persona que mantendrá las relaciones contractuales y de control con el Ayuntamiento de Irun.

g).- Udalekuan, gutxienez ibilgailu bat edukiko du beti, programa egin bitartean, programa garatzetik eratorritako ohizko eta ezohizko gorabeherei erantzuteko.

g) Dispondrá en la colonia de, al menos, un vehículo permanentemente durante la realización del programa, para cubrir las contingencias ordinarias y extraordinarias derivadas del desarrollo del programa.

h) Telefono mugikor bat jarriko du, txanda bakoitzeko arduradunak gertatu litezkeen larrialdietan erabiltzeko, beti lokalizaturik egoteko, koordinatze-lanetarako eta abar, programa garatzen den bitartean.

h) Pondrá a disposición de la persona responsable de cada turno de un teléfono móvil para su uso en posibles emergencias, localización permanente, coordinación, etc., durante todo el desarrollo del programa.

i) Enpresa lizitatzaileek uste badute beraiek egindako dokumentuak eskuratzeko aukerarik ezin zaiela eman hirugarrenei, bereziki kudeaketa sozioedukatiboko plana, berariaz kalifikatu behar dituzte konfidentzialtzat edo sekretutzat lizitaziora aurkezten duten dokumentazioan.

i) En caso de que las empresas licitadoras consideren que no puede darse acceso a terceros a documentos por ellos elaborados, en especial el plan de gestión socio educativo, o similares, deben calificarlos expresamente como confidenciales o secretos en la documentación que presenten a la licitación.

j) Enpresa esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru bat izango du.

j) La empresa adjudicataria dispondrá de un seguro de responsabilidad civil.

k) Enpresa esleipendunak une oro bete beharko du Euskal Autonomia Erkidegoan eta programa garatzen den erkidegoan indarrean dagoen araudia, haurren eta nerabeen babesaren eta prebentzioaren arloan, eta

k) La empresa adjudicataria deberá ajustarse en todo momento a la normativa vigente tanto en la Comunidad Autónoma de Euskadi como en la Comunidad en que en su caso se desarrolle el

bereziki azpimarratu beharko du indarrean dagoen araudi hau:
8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Osorik Babestekoa.
2/2024 Legea, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeei buruzkoa.

programa, en materia de protección y prevención en infancia y adolescencia, haciendo especial hincapié en la siguiente normativa vigente:
Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia.
Ley 2/2024, de 15 de febrero, de Infancia y Adolescencia.

5.2.-Udalarenak:

a) Beharrezko sustapena egingo du programan parte hartu dezaketenen artean, eta prozesu osoa egingo du: parte-hartzaileen izen-ematea, tokiak esleitzea, kobrantzak, etab.

b) Gurasoekin edo/eta tutoreekin bilerak egiteko leku egokiak jarriko ditu, eta bilera horietan parte hartuko du.

c) Garaiz emango dio esleipendunari txanda bakoitzean parte hartuko dutenen zerrenda, eta baita horietako bakoitzaren inguruan beharrezkotzat hartzen den dokumentazio guztia ere.

d) Istripu-asegurua kontratatuko du programan parte hartzen duten haur guztientzako.

5.2.-Del Ayuntamiento:

a) Realizará la promoción necesaria entre los potenciales participantes en el programa, y efectuará todo el proceso de inscripción de los participantes, adjudicación de plazas, cobros, etc.

b) Facilitará el espacio acondicionado para realizar las reuniones de padres/madres y/o tutores/as, además de participar en las mismas.

c) Entregará a la empresa adjudicataria con antelación suficiente relación de los participantes en cada turno, así como toda la documentación que se considere necesaria de cada uno de los mismos.

d) Contratará un seguro de accidentes para todos los niños/as participantes en el programa.

6.- LANGILEAK

Baldintza Pleguetan exijitzen diren lanak egiteko behar adina langile izango ditu esleipendunak, eta txanda bakoitza hasi aurretik zehaztu beharko du nortzuk egingo dituzten programako txanda bakoitzean garatu beharreko lanak.

Gutxienez honako langile hauek izango dira eta honako lan hauek egin beharko dituzte txanda bakoitzean kontratua garatzeko:

a) Arduradun bat, zuzendaritza-funtzioak dituena eta honako lan hauek egingo dituena: jarduera-programa koordinatu eta kudeatu, materialak eta giza-baliabideak kudeatu, osasun-larrialdiei arreta eman, Irungo Udalarekin eta parte-hartzaileen gurasoekin harremanetan egon.

Enpresa esleipendunak bermatu egin beharko du funtzioak egiteko esleitutako langileak honako betekizun hauek beteko dituztela:

6.- PERSONAL

La empresa adjudicataria dispondrá del personal necesario para realizar los trabajos exigidos en los Pliegos de Condiciones, y especificará antes del inicio de cada turno las personas concretas que desempeñarán las distintas funciones a desarrollar durante la realización de cada turno del programa.

El personal y las funciones que éste debe realizar para el desarrollo del contrato en cada uno de los turnos, al menos, son las siguientes:

a) Director/Directora de actividades educativas en el tiempo libre infantil y juvenil que realizará las tareas de coordinación y gestión del programa de actividades, gestión de recursos humanos y materiales, atención a urgencias sanitarias, relaciones con el Ayuntamientos de Irun, y padres y madres de los participantes.

La empresa adjudicataria deberá garantizar que el personal asignado a realizar las funciones cumpla los siguientes requisitos:

- Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza jardueren zuzendari titulua edo Eusko Jaurlaritzak homologatutako edo, modu subsidiarioan, gizarte hezkuntzako gradu titulua edo beste edozein titulu baliokide.

- C1 titulua edo horren baliokidea

- B1 gidatzeko baimena edukitzea.

b) Denbora libreko monitore tituludunak, gutxienez bat 10 parte-hartzaileko, eta jarduera-programa gauzatzeko behar adina Monitore espezialista behar adinako prestakuntza dutenak.

Enpresa esleipendunak bermatu egin beharko du funtzioak egiteko esleitutako langileek honako betekizun hauek beteko dituztela:

- Haur eta gazteen aisialdiko hezkuntza jardueren begirale titulua edo Eusko Jaurlaritzak homologatutako edo, modu subsidiarioan, gizarte hezkuntzako gradu titulua edo beste edozein titulu baliokide.

- B2 titulua edo euskara ezagutzaren baliokidea.

Enpresa esleipendunak bermatu egin beharko du a) eta b) funtzioak egiteko esleitutako langile guztiek honako betekizun hauek beteko dituztela:

- Sexu-delitugileen Erregistro Nagusian sartuta ez daudelako ziurtagiria.

Behar bereziak dituzten umeei edo adingabe instituzionalizatuei arreta eman behar dieten monitoreen kasuan, horrelako esku-hartzeak egiteko kualifikazioa eta esperientzia eduki beharko dute, dena behar bezala egiaztatuta.

Txanda guztiek monitore espezialista bat izango dute, eta haren profila, kasu bakoitzean, txanda bakoitzean parte hartzen duen haurraren beharren araberakoa izango da. Premia bereziak aitortu ez diren eta a priori monitore espezialistaren profila zehaztu ezin den kasuetan, udalak erabakiko du zein izango den programaren garapenari, bizikidetzari eta antzemandako premia pedagogiko eta asistentzialei arreta emateko monitore espezialistaren profila.

- Título de Director o Directora de actividades educativas en el tiempo libre infantil y juvenil o cualquier otro título equivalente u homologado por el Gobierno Vasco o, subsidiariamente, título de Grado o equivalente de la rama socioeducativa.

- Título C1 o equivalente de conocimiento de euskera.
- Carnet de conducir B1.

b) Monitores/as titulados de Tiempo libre, a razón de, al menos, uno/a por cada 10 participantes, y Monitores/as especialistas:

La empresa adjudicataria deberá garantizar que el personal asignado a realizar las funciones cumpla los siguientes requisitos:

- Título de Monitor o Monitora de actividades educativas en el tiempo libre infantil y juvenil o cualquier otro título equivalente u homologado por el Gobierno Vasco o, subsidiariamente, título de Grado o equivalente de la rama socioeducativa.

- Título B2 o equivalente de conocimiento de euskera.

La empresa adjudicataria deberá garantizar que todo el personal asignado a realizar las funciones a) y b) cumpla los siguientes requisitos:

- Certificación negativa del Registro central de Delincuentes sexuales.

En caso del monitor/a especialista en atención a niños y niñas con necesidades especiales o a menores institucionalizados/as, cualificación y experiencia en el desarrollo de este tipo de intervenciones, todo ello debidamente acreditado.

Todos los turnos contarán con un monitor especialista cuyo perfil, en cada caso, vendrá determinado por las necesidades del niño que participe en cada turno. Para los casos en los que las necesidades especiales no estén declaradas y no sea posible determinar a priori el perfil del monitor/a especialista, el ayuntamiento dispondrá cuál deberá ser el perfil del monitor/a especialista en atención al desarrollo del programa, la convivencia y las necesidades pedagógicas y asistenciales detectadas.

Langileak bajagatik, gaixotasunagatik edo beste edozein beharrengatik ordeztu behar badira, edo beste berriren bat sartu behar bada, horiek ere aurkeztutakoaren maila bera eduki beharko dute beti.

Udalak edozein unetan eskatu ahal izango dio enpresa esleipendunari klausula honetan exijitzen diren betekizunak frogatzeko dokumentazioa.

Nolanahi ere, udaleku programa hasi aurretik, enpresa esleipendunak lanak egingo dituen langileen zerrenda aurkeztu beharko du, eta horrekin batera, exijitzen diren betekizunak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa.

7.- BESTE ZENBAIT

Esleipendunak, irailaren 30a baino lehen, Memoria bat aurkeztu beharko dio Irungo Udalari dokumentu grafikozko euskarrian, argazkizkoa edo bideografikoa. Bertan, egindako jardueren zerrenda azalduko da, eta balantzea ere bai.
Era berean, kontratuaren esleipendunak Udaleko Marka Korporatiboa aplikatu beharko du kontratatutako zerbitzuaren elementu bakoitzean eta guztietan (paperak, bulegoak, ibilgailuak, instalazioak, etab.); horretarako, aurretik, Udalaren Antolakuntza eta Kalitate Zerbitzuarekin kontsultatu beharko du.

Dokumentuetan, publizitatean, irudietan eta kontratuaren ondorioz sortzen den gainerako materialean hizkuntza ez-sexista erabiliko du enpresa esleipendunak. Ez du erabiliko emakumea diskriminatzen duen irudirik, eta berdintasunaren, aniztasunaren eta ardurakidetzaren balioak sustatuko ditu. Halaber, genero-ikuspegia kontuan hartuko du kontratuaren ondorioz sortzen diren txostenetan, idazkietan, datuetan, estatistiketan eta abarretan.

Hizkuntza baldintzei dagokionez esleipendunak zerbitzua ematerakoan baldintza hauek beteko ditu:

Udalekuan garatu beharreko programa eta jarduera guztiak euskara hutsean egin behar dira, eta jarduerak egiteko erabili beharreko material eta baliabide guztiak euskaraz izan behar dira. Era berean, haurrekiko komunikazioa, ahozkoa zein idatzizkoa, euskara hutsean egingo da.

En caso de baja, enfermedad, o cualquier otra necesidad de sustitución del personal, cualquier nueva incorporación deberá mantener en cualquier caso un nivel equivalente al presentado.

El Ayuntamiento en cualquier momento podrá solicitar a la empresa adjudicataria la documentación justificativa de los requisitos exigidos en esta cláusula.

En todo caso, dos meses antes del inicio del programa de colonias la empresa adjudicataria deberá presentar la relación del personal asignado a la ejecución de los trabajos, junto con la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos exigidos.

7.- VARIOS

La empresa adjudicataria deberá entregar al Ayuntamiento de Irun una Memoria con soporte documental gráfico, fotográfico y/o videográfico, que será entregado antes del 30 de septiembre, incluyendo relación de actividades realizadas y balance.
Igualmente, la empresa adjudicataria del contrato deberá aplicar la Marca Corporativa del Ayuntamiento en todos y cada uno de los elementos (papelería, oficinas, vehículos, instalaciones, etc.) propios del servicio contratado, debiendo previamente consultar con el Servicio de Organización y Calidad del Ayuntamiento.

La empresa adjudicataria utilizará un lenguaje no sexista en la documentación, publicidad, imágenes y demás material resultante del contrato. Se evitará el uso de imágenes que redunden en la discriminación de la mujer y se potenciarán valores como la igualdad, la diversidad y la corresponsabilidad. Así mismo, se tendrá en cuenta la visión de género en los informes, escritos, recopilación de datos, estadísticas… que resulten de la ejecución del contrato.

Respecto a las condiciones lingüísticas el adjudicatario debe prestar el servicio cumpliendo las siguientes condiciones:

Los programas y todas las actividades a realizar durante la colonia deben desarrollarse íntegramente en euskera, y todos los materiales y recursos a emplear para la realización de actividades deberán estar en euskera. Así mismo, la comunicación con los niños/as, tanto verbal como escrita, se desarrollara íntegramente en euskera.

Haurrak ez diren zerbitzuaren beste erabiltzaileek (gurasoak, tutoreak…) edozein hizkuntz ofizial erabiltzeko eskubidea dute, beraz, hitz egiten duten hizkuntzan artatuak izango dira; ezingo zaie eskatu hizkuntza ofizial batean edo bestean hitz egin dezaten. Komunikazioan kontratu honen menpeko langileak hasten badira euskara erabiliko dute eta erabiltzaileak erabakiko du euskaraz ala gaztelaniaz jarraitu. Publiko elebidun batentzako komunikazioak lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz egingo dira.

Las personas usuarias del servicio que no sean niños/as (padres, madres, tutores/as…) tienen derecho a usar cualquiera de las dos lenguas oficiales debiendo ser atendidos en el idioma en que se expresen, sin poder solicitarles que se expresen en una u otra lengua. Si la comunicación la inicia personal adscrito al contrato inicialmente usará el euskera y será el usuario/a quien decida comunicarse en euskera o en castellano. Las comunicaciones dirigidas a un público bilingüe se realizarán primero en euskera y después en castellano.

Guraso edo tutoreentzako idatzizko komunikazioa (emailak, SMSak…) euskaraz edo bi hizkuntzetan egingo da euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiago edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

La comunicación escrita (correos electrónicos, SMS…) destinada a los padres, madres o tutores/as, se deberá realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Ahoz, audioz edo ikus-entzunezkoen bitartez herritarrei ematen zaizkien mezuak eta komunikazioak euskaraz, edo ele bietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez (lehenengo euskaraz eta gero gaztelaniaz). Kontratua dela eta egindako aurkezpenak, ekitaldi publikoak, prentsaurrekoak eta antzekoak modu berean egingo dira.
Kontratu hau dela eta sortzen diren publizitate kanpaina, eslogan eta izendapen berriek (zerbitzuak, guneak…) euskaraz edo elebietan (euskara lehenetsiz) beharko dute. Euskarazko marka, lelo eta esloganak hizkuntz horretan bertan sortuko dira, gaztelaniaren itzulpen hutsa ekidinez.

Los mensajes y comunicaciones orales, de audio o audiovisuales destinados a la ciudadanía se realizarán en euskera, o en bilingüe dando prioridad al euskera (primero en euskera y después en castellano). Las presentaciones, actos públicos, ruedas de prensa y similares relacionadas con el contrato se realizarán de la misma manera.
Las campañas publicitarias, eslóganes y nuevas denominaciones (servicios, centros, espacios…) generadas por este contrato deberán realizarse en euskera o en bilingüe (priorizando el euskera). Las marcas, lemas y eslóganes en euskera se crearán en esa misma lengua, sin que sean una mera traducción de la versión en castellano.

Enpresa esleipendunak informazio eta ekintzetan Irungo udalak onartutako kaletegi eta tokiko toponimia ofizialak erabiliko ditu. Irundik kanpoko gainerako leku izenetan modu ofiziala erabiliko da. Zalantza edo eztabaida kasuan Euskara Arloak emango du txostena.

La empresa adjudicataria utilizará para la información y actividades el callejero y la toponimia local oficiales aprobados por el Ayuntamiento de Irun. Para el resto de nombres de lugar de fuera de Irun se usará la denominación oficial. En caso de duda o discrepancia el Área de Euskera informará al respecto.

Kontratuari lotuta, udalari entregatu behar zaizkion dokumentu ez publiko edo barneko guztiak, hala nola fakturak, memoriak, e.a. euskaraz edo elebietan idatzita egongo dira, euskarari lehentasuna emanez (euskarazkoa goian, ezkerraldean, handiagoa edo letra lodiz; eta gaztelaniazkoa behean, eskuinean, txikiago edo letra arruntaz).

Todos los documentos no públicos o internos relativos al contrato, como facturas, memorias, etc. que deban entregarse al Ayuntamiento se deberán realizar en euskera o en bilingüe dando prioridad al euskera (el euskera arriba o a la izquierda o en negrita; y el castellano abajo, a la derecha, más pequeño o no negrita).

Kontratua kudeatzeko bulegotikako materiala, hardwarea eta softwarea, prestatua egon beharko da euskaraz ere funtziona dezan. Kontratatzen den zerbitzuarekin lotuta hizkuntza batean edo bestean idatz daitezkeen webgune domeinu eta izenek, mezu elektronikoek eta abarrek

El material de ofimática, tanto hardware como software, para la gestión del contrato deberá estar preparado para que funcione también en euskera. Los dominios y nombres de páginas web, correos electrónicos, etc., vinculadas al servicio objeto del

euskaraz egon beharko dute gutxienez.

Ziurtatu beharko da kontratuari atxikitako langile guztiek euskararen ezagutza-maila nahikoa dutela zerbitzu egokia eman ahal izateko eta kontratuaren udal-arduradunekin hitz egiteko. Ordezkapenak egin edo langile berriak kontratatu behar direnean alderdi hori kontuan izan beharko da. Kontratua kudeatzeko enpresak langileei formazioa emango balie, euskaraz edo elebietan beharko du.

Hizkuntz Baldintza klausula honek klausula administratibo berezien pleguko (KABP) KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK atalean hizkuntza ofizialtasun bikoitzari buruz xedatutakoa osatzen du. Esleipendunak beti ere Irungo Udalean eta udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko arauei buruzko udal Ordenantza bete beharko du, eta baita euskararen erabilera Normalizatzeko Plana ere. Kontratuaren arduradunari dagokio hizkuntz baldintza hauek kontrola eta jarraipena.

contrato que sean susceptibles de ser escritos en una lengua u otra, como mínimo deberán estar en euskera.

Deberá asegurarse que el personal adscrito al contrato tiene el conocimiento del euskera adecuado para atender correctamente al servicio, y para la interlocución con los responsables municipales del contrato. En el caso de sustituciones o contratación de nuevo personal se tendrá en cuenta este aspecto. La formación que la empresa imparta a los trabajadores para la gestión del contrato será en euskera.

Esta cláusula de condiciones lingüísticas complementa lo establecido respecto a la doble oficialidad lingüística en la relativa a los DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL CONTRATISTA del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares (PCAP). El adjudicatario deberá cumplir la Ordenanza municipal sobre normas para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y municipio de Irun, así como el Plan de Normalización del uso del euskera. Corresponde al responsable del contrato el control y seguimiento de estas condiciones lingüísticas.